

ONLINE IKASTAROA DOHAINIK

35 ordu (1'5 kreditu)

Izena emateko epea: 2024ko
irailaren 9tik urriaren 4ra

Hasiera data: urriaren 14a

**haurren
kontrako sexu
abusuak:
babesa
lantzen**



HAURREN AURKAKO SEXU ABUSUAK: BABESA LANTZEN

Izena emateko epea: 2024ko irailaren
9tik urriaren 4ra, biak barne

Hasiera data: urriaren 14a

Amaiera data: abenduren 9a

ONLINE IKASTAROA

**IKASLE, IRAKASLE ETA
TEKAZELENTZAT**

100 PLAZA

EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

DOHAINIK

35 ORDU (1'5 KREDITU)

ARDURADUNA:

ENARA AGIRRE ARRIZABALAGA

EBALUATZAILE TALDEA:

MAITANE URIZAR ELORZA

NAHIA IDOIAGA MONDRAGON

MAITANE DE BELASCO TXERTUDI

MAITANE GARCIA HERCE

AMAIA ARBELOA MIRANDA

ESTRELA GOMEZ VIÑAS

GARAZI ALONSO LOPEZ

AMAIA EIGUREN MUNITIS

SANDRA BRIZUELA RODRIGUEZ

TALDE TEKNIKOA:

ENERITZ IBARGUENGOITIA BASTERRETXEA



PROGRAMA

HAURREN KONTRAKO SEXU
ABUSUAK: BABESA LANTZEN



Aurkibidea

1. SARRERA	1
2. HELBURUAK	2
3. MODULU TEORIKO ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK	2
4. EGITURA	3
5. IRAUPENA	3
6. EBALUAZIOA	3

Antolatzailea: Berrikuntzako, Gizarte Konpromisoko eta
Kulturgintzako Errektoreordetzak eta UPV/EHUko
Berdintasunerako Zuzendaritzak.

Egileak: Maitane Urizar Elorza eta
Nahia Idoiaga Mondragon



1. SARRERA

Ongi etorria UPV/EHUren Haurren kontrako sexu abusuak: babesa lantzen izeneko prestakuntzara.

Haurren aurkako sexu abusuen arazoak gaurkotasun handia du, zoritxarrez. Prebalentzia tasa oso handia dela adierazten dute azterlanek, baina, hala ere, ia ez dugu berriazko prestakuntzarik arazo horri aurre egin behar dioten profesionalen esku jartzeko. Gaur egun esan dezakegu umeen laurdenei baino gehiagori eragiten diela gizarteko arazo horrek. Ez zaie egiturazko prebentziorik ematen egoki kudeatu ahal izateko: profesionalak ez dute prestakuntzarik ez arazoa prebenitzeko ezta antzemateko ere eta ez dute tresnarik aski jarduketa kudeatzeko.

Haurren aurkako sexu abusuari buruzko datuak asaldagarriak dira: lau neskatotik batek eta zazpi mutiletatik batek sufritzen dute sexu abusua eta familiarik edo umearen konfiantzazko esparrutik datoz abusatzaileen %90. Alabaina, familia barneko kasuen %2 baino ez dira antzematen abusua gertatzen den unean. Horregatik, profesionalak prestakuntza egokia eduki behar dute era horretako abusuen aurrean jardun ahal izateko.

Ikastaro honen helburua haurren aurkako sexu abusuari eta haren ondorioei buruzko gogoeta egitea da, besterik gabe; arazoa aurkeztea nolabait. Haurren aurkako sexu abusua zenbait ikuspegitatik aztertuko dugu horretarako. Horien artean daude, besteak beste, ikuspegi judiziala, pedagogikoa, prebenitzeko eta antzemateko alderdiak, bai eta era horretako abusuei heltzeko dauden protokoloak ere.

Problematikan sartze aldera, lehenengo moduluan haurren eskubideen historia eta bilakaera aztertuko ditugu, bai eta zer eragin izan lezakeen garapen horrek familia barruko egungo abusu-egoeran. Honez gain, ikerketek eskaintzen dizkiguten datuak landuko ditugu. Bigarren moduluan, biktimaren egoera emozionala ulertzeko, sexu-abusuaren biktimak jasaten duen erakartze- eta egokitze-prozesuak landuko dira. Prozesu honen eta detekzioaren arteko harremana landuko dugu, eta, horrez gain, zer egin behar dugun eta zer ez azalduko da, profesionalak garen aldetik, biktima ezagutaraztearen aurrean. Hirugarren moduluan, halaber, haurren sexualitatea, adierazleak eta epe labur eta luzerako ondorio psikologiko eta fisikoak (edo horiek ez egotea) aztertuko ditugu. Prebentzioa egiterakoan kontuan hartu beharreko gutxienezko abiapuntu batzuk eskaintzeaz gain. Egungo egoera soziopolitikoa ulertzeko, laugarren eta azken moduluan, indarrean dagoen agertoki juridiko-instituzionala landuko da; izan ere, horrek eragin zuzena izango du kasuak bakoitzaren eremu profesionaletik jorratzerako orduan. Amaierako lanak ariketa praktikoa izango du, bakoitzaren eremu profesionaleko protokoloa abiapuntu, haurren aurkako sexu-abusu kasu baten aurrean jardutea planteatu beharko da.

Prestakuntzaren bidez, ezagutzak barneratzeaz gain, komunitatean gogoeta egiteko aukera ere izango dugu, sareko profesionalak zalantzak eta galderak adierazi ahal izango baitituzte.



2. HELBURUAK

- Haurren aurkako sexu abusuaren arazorako hurbilpena egitea: definizioa, mitoak argitzea, erasotzailearen eta biktimaren profila, prebalentzia datuak.
- Haurren aurkako sexu abusuaren salaketa bat dagoenean hasten den prozesu judiziala ezagutzea: arlo zibileko eta zigor arloko epaitegia, kasuen oraingo egoera, salaketa kopurua, birbiktimizazioa.
- Sexu abusuak pairatzen dituzten umeen adierazle fisikoetan eta jarrerazkoetan sakontzea, horrelakoak antzeman eta prebenitzeko prestakuntza ematea helburu izanik.
- Profesionalak haurren aurkako sexu abusuaren aurrean nola jokatu behar duen lantzea, umeari eman beharreko arreta zein ingurune hurbilari eskaini behar zaion arreta komunikatibo eta kolaboratiboa.
- Umeen sexu abusuaren aurrean jarduteko gaur egun indarrean dauden protokoloak aztertzea eta gogoeta kritikoa egitea.

3. MODULU TEORIKOAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK

1. modulua: Haurren aurkako sexu abusuei buruzko hastapenak. Kontzeptu esparrua eta datu analisia

- Umeen aurkako sexu abusuaren arazoaren kontzeptu nagusiak ezagutzea eta lantzea.
- Bibliografian gaur egun bildutako prebalentzia datuak aztertzea.
- Haurren eskubideen ibilbide historikoa ezagutzea.
- Umeen aurkako sexu abusuaren egoera aztertzea, antzinarotik gaur egun arte.

2. modulua: Biktima erakartzeko eta sexu-abusura egokitzeko prozesuak

- Biktima eta erasotzaileei buruzko bibliografiaren datuak ezagutzea
- Erasotzaileak biktima erakartzeko eta limurtzeko erabiltzen duen prozesua ezagutzea.
- Abusuaren berri ematen digun biktimarekin segitu beharreko jarraibideak ezagutzea.
- Sexu abusuak pairatu dituzten umeekin, profesional gisa, zer egin behar den eta zer ez ezagutzea.

3. modulua: Detekzio goiztiarra eta ondorioen prebentzioa.

- Prebentzio programak gauzatzeko irizpideen hastapenak.
- Antzematea ahalbidetzen duten baliabideak ematea.
- Jakinarazpen indizeak ezagutzea.
- Haurren sexualitateari buruzko mitoak argitzea.
- Adierazle nagusiak eta horien absentsia ezagutzea.



- Umeen aurkako sexu abusuen epe labur eta luzeko ondorio fisikoak eta psikologikoak ezagutzea.
- Ama babesleen egoerari eta emozioei buruz eta hauek biktimak pairatu ditzazkeen ondorioetan duen eraginari buruz gogoeta egitea.
- Intzestu kasuetako ama babesleekiko enpatia lantzea.

4. modulua: Haurren kontrako Sexu Abusuen aurreko egoera instituzional eta judiziala.

- Umeen aurkako sexu abusuen oraingo egoera juridiko-instituzionala ezagutzea.
- Haurren kontrako sexu abusuen biktimek dituzten Haurren Eskubideen Konbentziotik eratorritako eskubideak ezagutzea

4. EGITURA

Ikastaroaren eduki teorikoa lau modulutan antolatuko da. Modulu bakoitzak honako elementu hauek ditu:

- Eduki teorikoa: Haurren aurkako sexu abusuen esparru teorikoa biltzen duen agiria, arazoari buruzko azterlanen irakurketa bibliografikoarekin.
- Dokumentazioa: Unitate didaktiko bakoitzak bibliografia bat du, bai eta erreferentziako gaiari buruz sakontzeko egokitzat jo diren baliabide guztiak ere (artikuluak, bideoak, albisteak, etab.).
- Parte hartzeko foroak: Foro bat sortuko da gai bakoitzean. Foroari esker, taldeko gogoetaz gain, artxiiboak eta agiriak elkarri trukatzeko aukera ere egongo da.
- Testa: Eskuratutako ezagutzak baloratzeko, ikastaroko unitate didaktiko bakoitza amaitutakoan, gaiari buruzko ezagutzak neurtzeko test bat egin beharko dute ikasleek.

Azken lana. Azken lan bat egingo dute (800-1.000 hitz artekoa) prestakuntzaren egiaztagiria eskuratu ahal izateko.

5. IRAUPENA

Ikastaroko modulu bakoitzak astebete iraungo du, eta beste astebete, azken lana aurkezteko.

Hasiera data: urriaren 14a

Amaiera data: abenduren 9a

6. EBALUAZIOA

Gai guztien testak gainditu beharko dituzte ikasleek, ikastaroa gaindituko badute; nahitaezkoa izango da, halaber, moduluetan proposatutako lanak egitea, bi forotan gutxienez parte hartzea eta azken lana gainditzea ere.